

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 22.eko erkidegoari onartutako laguntzen ehuneko 45 ordaintzea, eta ehuneko 50 erkidego horretan zaurgarritasun-egoeran dauden pertsoneri, Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdiaren barruan

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Lehen. 270.287,45 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko erabakien bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 22.eko jabe-erkidegoari emandako laguntzen ehuneko 45i dagozkionak, lanak egiteko proiektuen ordainsariak ordaintzeko zenbatekoak kendu ondoren, honen arabera:

ERKIDEGOA	EMANDAKO LAGUNTZA	ORDAINDUTAKO PROIEKTUA	LEHEN ORDAINKETA, % 45
Biasteriko taldearen kalea 22	633.133,65 €	14.622,69 €	270.287,45 €
GUZTIRA			270.287,45 €

Bigarrena. 50.112,81 euro ordaintzea, Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 22.ean zaurgarritasun-egoeran dauden jabeei emandako laguntza gehigarrien zenbatekoaren ehuneko 50i dagozkionak, honen arabera:

ESKATZAILEA	ZENBATEKO GUZTIRA	LEHEN ORDAINKETA, % 50
72738865P	8.748,18 €	4.374,09 €
16274697N	10.922,48 €	5.461,24 €
09978607B	10.463,84 €	5.231,92 €
58065109E	10.922,48 €	5.461,24 €
16266531B	10.463,84 €	5.231,92 €
13100954Q-71114926F	10.922,48 €	5.461,24 €
18594174P-11958598R	10.922,48 €	5.461,24 €
14842899X	10.463,84 €	5.231,92 €
16266048B	11.192,00 €	5.596,00 €
76071702F-16245093D	5.204,00 €	2.602,00 €
GUZTIRA		50.112,81 €

Hirugarrena. 21 Zabalgunea SAri baimena ematea aipatutako zenbatekoak ordaintzeko, deialdiaren oinarrien 36. artikuluan xedatutakoa betez.

Laugarrena. Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotziari eskuordetzea egin beharreko gainerako ordainketak baimentzea, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko eta maiatzaren 24ko erabakien bidez emandako laguntzen deialdiaren oinarrien 37. artikuluan jasotako ordainketa-sekuentziaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 28an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA